

MATERIALISMO HISTERIKOA

Lodifobia



UXUE APAOLAZA LARREA

Onintza Enbeitak bere urriaren 4ko zutabeen lodifobia salatu zuen ginekologoari egindako bisita batean bizi izandakoaren harira. Denok gorputz berean sartzeko tema denok bizi dugula esan genezake, eta esaten da, eta egia da, denok entzun ditugu zerak, baina egia da baita ere... debekatuta-debekatuta dagoena lodi egotea dela. Lodia izatea.

Ni argala naiz. Oso argala naiz. Urduri nagoenetan sabela ixten zait, eta kontuz ibili behar dut aurretik pixka bat loditu ez banaiz, hezurretan bukatzen dudalako berehala. Aurpegian igartzen zait, zimurrak asko markatzen baitzaizkit, begizuloak amildegitu. Tentsioa baxu, zorabiatu egiten naiz maiz, eta gaizki jan, azkar bizi, gaixotzeko ere ez zait asko falta izaten zigarro bat gehiago erretzen badut. Entzun behar izan dut “puag”-en bat, “nazka pixka bat ematen du”... baina oso bakanetan. Inoiz ez dit mediku batek errietarik egin horregatik. Ezta haurdun gelditu nintzenezan ere.

Haurdun gelditu nintzenezan jan eta jan aritu nintzen: 1,81 neurutzen dut, ez nintzen 60 kilora iristen, eta hasi nintzen hirurogei kiloak pasa, eta itxura osasuntsua hartzen. Nire jateko faboritua hanburgesa bokadiloa zen, patata frijituak barruan sartuta. Edozein ordutan. Ginekoloarengana iritsi nintzenezan hirurogeita hamarrek pasata nituen. Lehen aldiz nire bizitzan, errieta egin zidaten baskulak markatzen zuen pisua zela-eta. Eta ezin izan nuen erantzun, ez dakit zergatik, beti naizelako iraintzen nautenak baino errespetutsuagoa: “Zuk ikusiko duzu zure umeari zer egiten diozun” (“Ez dizut esan zaldia txutatzen ari naizenik, makarroiak jaten ditut, marihuanarik gabe”); “horrelako omenaldiak egiten badizkiozu zeure buruari goizero” (tostadak gurinarekin gosal-tzeagatik); “ezingo zaituzte ohe batetik bestera mugitu, jartzen zareten moduan” (“arrain batek zera zaitzala, maja, eta utzi sagarrak jateari, eta jan iezadazu...”). (Ulertuko zenuten zergatik ez nion momentuan erantzun).

Nire argaltasuna ez da osasungarria. Ez zen umekiarentzat ere. Eta lodia nengoelako egin zidaten errieta oraindik argal ez, argalegi nengoela. Mediku batek. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



ADUR

Migrazioa

Zazpi herritarrek Hendaiako komisarian deklaratu dute eta urtarrilean berriro ere deklaratu beharko dute Baionan, “talde antolatuan migratzaileak Frantziako Estatuan sartzen laguntzea” leporatuta. Lagun ugari mobilizatu da, elkartasuna ez dela delitua aldarrikatzeko.

Estatuen biktimak

Urriaren 12an Guardia Zibilak ekitaldia egingo du Gasteizko erdigunean lehen aldiz, eta horri erantzunez ekimena iragarri du egun berean Memoria Osoak. Salatu du biolentziaren biktima izan direnen arteko desberdintasunak bultzatzen ari direla hainbat instituzio, eta norabidea zuzentzeko deia egin du.

EHU

Irain matxistak, homofoboak, frankistak, diskriminatzaileak... kaleratu dituen Álvaro Sánchez Hernández Zuzenbideko irakaslea lanpostutik kentzeko prozesua martxan jartzea erabaki du Euskal Herriko Unibertsitateak, egoera juridikoki aztertu ondoren.